



67. zk | 2017ko abendua

# Berbarotarra

## EUSKARALDIA



### Belarriprest-*ez* eta Ahobizi-*z* beteko dugu Durango 2018an

Durangon gero eta jende gehiagok daki euskaraz. Harro esan dezakegu hori hala dela: euskaraz ikasi ikasten dela, euskara irakatsi irakasten dela eta euskara jakin badakigula. Ez da gutxi, ezta? Kontua da, betikoa. Horrenbeste ikasi, irakatsi eta jakin badakigu, zergatik ez da maila berean entzuten?

Zenbat bazkalostetako gaia izan ote den hori gutako askorentzat, eta ahoa berotuta zenbat buru berotu ditugun hemen kontua egitea dela esanez. Bada garaia kontu horri errotik heldu eta ohi-turak aldatzen hasteko. Durangon ez ezik, Euskal Herriko beste hainbat txokotan iritzi bera dute eta egitasmo orokor bat antolatuko da hizkuntza ohituretan eragiteko. Urte berria ate joka dugu eta 2018an Durangon ere gogor ekingo diogu horri.

Urte osoko lana izango da Durango Ahobizi-*z* eta Belarriprest-*ez* betetzea; hau da, euskaraz dakigunok euskaraz bizitzeko konpromisoa hartuko dugu, eta euskaraz horren ondo moldatzen ez direnek borondate eta prestasun osoa adieraziko dute euskaraz bizitzea ahalbidetzeko. Erronka norberak nahi duen neurrikoa izango da, baina badago proposamen bat: 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, 11 egunez euskaraz bizitzeko entsegua egitea. Behin gustua hartuta, jarraitu baino ez da egin behar...

Han hemen entzungo duzue Euskaraldia ekimena, entzungo duzue *Baietz 11 egun* euskaraz egitasmoa, Ahobizi eta Belarriprest figurak. Jakin, euskaraz bizitzeko konpromisoa hartu dugula eta zu ere bidelagun eta ekintzaile gura zaitugula. Informazio gehiago: [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)

### Abenduaren 1ean aurkezpena Durangon

Ahobizi eta Belarriprest zer diren azalduko dugu bertan

11 egunez euskaraz bizitzeko egitasmoaren aurkezpena egingo dugu abenduaren 1ean Durangon. Aurkezpen ekitaldia arratsaldeko 19:30ean izango da Andra Mariako elizpean. Karrika Antzerki Taldekoen eskutik ekitaldi herritarra egingo dugu eta Durangoko euskaltzaleok bertan izatea oso garrantzitsua da. Ekitaldi mamitsu bezain umoretsua izango da, bariku iluntze baterako plan ezin hobea. Apuntatu ondo agendan, bertan ikusiko dugu elkar.

## Udazkena eta hotza heldu dira eta gu Itzartu gara iada!



Indartuta dator bueltan Itzartu, nobedade eta proposamenez beteta, gazteentzako aisialdi eskaintza euskaldun, propio eta alternatiboa eskaintzen jarraitzeko asmoz.

Durangon ikasturteak jaiekin batera hasten direnez, egun horiek baliatu

genituen lehenengo ekintza burutzeko. Hezitzaile izateko adinean dauden gazteak deitu genituen paella txapelketa eta erreka jaitzierara, gazte izatetik hezitzaile gazte izaterako salto naturala egitea errazteko. Arrakastatsua izan zen deialdia, eta hezitzaile taldea nabarmen

handitzeko balio izan zuen, gazte gogotsu asko animatu baitira Durangoko hezkuntza ez formalean beraien hazia ereitera.

Asanblada ireki batekin eman genion hasiera bide berriari, eta hainbat hausnarketen artean, formakuntza beharra gailendu zen. Gabezia honi irtenbidea emateko, ikasturtean zehar hainbat ikastaro labor antolatuko ditugula adostu genuen. Landuko ditugun gaien artean hezkidetzeta, jolasak, parte hartzea eta euskara daude, guztiak ere ezinbestekoak. Hezkidetzeta izan da lehenengoa (argazkian), Urtxintxa eskolaren eskutik jaso dugu formazioa eta 20 hezitzaile inguru batu gara. Egun bera aprobetxatuz, Itzartuko bigarren ekintza burutu dugu, umeei gaupasa. Aspaldi eskatzen zuten jarduera da gaua kanpoan pasatzea eta Landako eskolari esker, bertako gimnasioan egin dugu lo.

Hilean ekintza bat egingo genuela adostu genuen asanbladan; hortaz, abenduan Durangoko Azokaren bueltan batuko gara berriz. Horrez gain, eta ia azko egun sorginduen arrakasta ikusita, aurtengo neguko oporretan ere hiru eguneko irteera egingo dugu.

Martxan gara, gogotsu eta indartsu gaude. Zeuk ere parte hartu gurako zenuke? Hemen izango gaituzu!

## Ondo etorri, Igor eta Mainer!

Lankide berriak ditugu Berbaron. Uda ostean, gurekin hainbat urte egin dituzten Gorka Madrazo Ortuzarrek eta Goiatz Etxeita Agirrek bertako jarduna utzi zuten, eta Igor Salterain Alberdi eta Mainer Gisasola Agirrebeitia batu dira gurera. Ezer baino lehen, eskerrak eman gura dizkiegu Gorka eta Goiatzi. Zortetik onena opa dizuegu zuen ibilbide berrietan!

Igor eta Mainer gogotsu hasi dira lanean. Igor abadiñarra gazte arloko teknikari gisa dabil, eta Mainer mallabitarra Amankomunazgoan, euskara teknikari.

Gazte arloko erronken artean, Igorrek etengabeko formazioari eman dio garrantzia. "Berbarotik aisialdi euskalduna eta balore konkretu batzuk dituen eskaini gura dugu, eta, horretarako, hezitzaileok formatu egin behar gara, eta nik, teknikari moduan, hezitzaileei tresnak eta baliabideak eskaini behar dizkiet formazio hori jasotzeko. Itzartuko hezitzaileok hausnarketa hori egin dugu; garrantzia handia eman diogu geure burua



formatzeari, eta nik uste dut hori erronka bat dela".

Amankomunazgoan, bestalde, Mainerrek azaldu du euskarari dagozkion programak eta ekintzak Durangaldeko herri guztietara iristea gustatuko litzaiokeela. "Barrura begira, berriz,

datorren urteko helburuari gogotsu ekin nahi diot, hau da, barruko 'Erabilera Plana' osatzeari. Izan ere, horrela, orain arte egin diren lorpenak eta dauden hutsuneak zeintzuk diren jakinda, erronka berriak planteatu daitezke euskararen erabilera indartzeko."

## “Hi gazte! Zergatik ez?” euskara bultzatzeko motibazio saioak

2012tik, Durangaldeko hainbat ikas-tetxetan euskararen erabilera soziala bultzatzeko tailerrak ematen gabiltza, DBH4ko eta batxilergoko lehen mailako ikasleei. Tailer horiek helburu bi dituzte: alde batetik, euskararen erabilerean inguruko hausnarketarako gune bat sortzea eta aukeratzeko ditugun hizkuntza jarrerak eraginaz jabetzea; eta, beste aldetik, euskararekiko jarrera baikorrak sustatzea eta euskararen errealitatearen eta etorkizunaren inguruan ikuspegi baikorra azalartzea.

Aurten, berrikuntza legez, Elorrion bi guraso talderi eta Ibaizabal ikastolan Haur hezkuntzako modulukoiei eman diegu tailerra.



## Oin herri, herri hezitzailea eskola herritarra

Urriaren 28an, Oinherri Donostiako Tabakalera antolatutako jardunaldietan parte hartu genuen.

Oinherri gogoeta eta ezagutzaren ekoizpen kolektiboa egiten duen taldea da, komunitatearen parte-hartzetik eta euskararen erabilerekin abiatuz hezkuntza-esparruak sustatzen dituen. Urriaren 28an, Euskal Herriko aisialdi talde eta eragileetako hezitzaileekin hainbat lan ildo eztabaidatzeko jardunaldiak antolatu zituen.

Goizean goiz, hainbat lantegitan parte-hartzeko aukera izan genuen: jolasa, eskubidea eta errealitatea; arte hezkun-

tza eta prozesu kolaboratiboak; eta nola antolatu udaleku parte hartzaile bat.

Jarraian, gorputz anitzak bizitzeko modu anitzak eztabaida-mahaian izan ginen. Identitate zein gorputz anitzen gaia gaur egun pil-pilean dago. Hezkuntza esparruan landu diren transexualitate eta genero aniztasunari buruzko begiradak ezagutzea ezinbestekoa da hezitzaileon formakuntzarako.

Aberasgarria izan zen, oso; lehen pausua izan da norbera aberastu eta egunerokotasunari (ikasgelan, etxean, kalean...) ekiterakoan hausnartzeko ga-koak izateko.

## Badatoz Neguan Olgetan egonaldiak

Aisialdi eskaintza euskaraz, ezin hobeto pasatzeko!

Aurten ere neguko oporraldirako eskaintza ezin hobea antolatu dugu Berbarotik: Neguan Olgetan.

Haur eta gazteek aisialdi eskaintza euskaldun, propio eta alternatiboa jasotzeko aukera izango dute. Ekintzak haurren motibazio eta interesetatik abiatuko dira, eta, horretarako, haurrekin batuko gara egonaldi hasieran pentsatutako programazioa aurkezteko eta beraien ekarpenak jasotzeko. Horrela, askoz ere erakarriagoa izango da egonaldia eta askoz ere gogotsuago parte hartuko dute.

Erabiliko dugun metodologia gazteen ezaugarriari eta gaitasunei egokitutakoa izango da; aktiboa, parte hartzailea eta integrala izango da, eta jakin-mina, interesa eta irudimena indartuko ditugu.

Ez da aspertzeko aukerarik egongo, gure helburu nagusia denbora librean euskaraz ondo pasatzea da! Animatu eta izena eman!

### INFORMAZIOA

**NORENTZAT:**  
3-10 URTE BITARTEKO UMEENTZAT  
2006 ETA 2013 URTEEN BITARTEAN JAIKIAK

**NOIZ:**  
1. ASTEA: ABENDUAREN 26TIK 29RA  
2. ASTEA: URTARRILAREN 2TIK 5ERA


**NON:**  
IBAIZABAL IKASTOLAN

**ORDUTEGIA:**  
09:00 - 13:30

**IZEN EMATEA:**  
BERBAROREN BULEGOAN  
AZAROAREN 20TIK ABENDUAREN 15ERA  
\*OHARRA: ASTELEHENETIK OSTIRALERA  
09:30-13:30 ETA 15:30-18:30

**PREZIOA:**  
ASTE BETE 65€/BAZKIDEAK 50€  
BI ASTE 120€/BAZKIDEAK 90€

**Informazio gehiago:**  
Berbaro elkarte: Pinondo plaza, 1. solairua  
946202540 / aisialdia@berbaro.eus / www.berbaro.eus




### Astelehen arratsalderako planik bai?

#### OLGETAN LUDOTEKA PLATERUENAN

2007tik Plateruenan eskaintzen dugun ekimen honek, aurten 10 urte egingo ditu. Hainbat aldaketa izan dituen arren, azken urteetan astelehenero, Plateruena Kafe Antzokiko eszenatokian jartzen da martxan ludoteka.

Ludotekako erabiltzaileak arratsalde-pasa gerturatzen diren 3-10 urte bitarteko umeak dira, eta ez dira beti parte hartzaile berak izaten.

Ludotekaren helburu nagusiak dira gerturatzen diren haurrei aisialdi gune euskaldun bat eskaintzea, parte hartzaileak elkar ezagutzeko topagunea izatea eta jolasaren eta esplorazioaren bidez haurrak ondo pasatzea eta ikastea, besteak beste. Sarrera doan da, eta ludoteka 17:00etan zabaldu eta 18:30ean itxiko da.



## Haur Litertur Aretoa, urteroko aitzakia

### Euskarazko haur eta gazte literaturak badu zeresana

Haur eta gazte literaturak sormena, transmisioa, hizkuntza, irudimena eta abar luze bat garatzen ditu. Herrialde eta kultura guztietan, ipuinei esker, urruneko eta hurbileko istorioak lehenengo pertsonan bizitzeko aukera dugu. Berbarotik sentsazio eta bizipen horiek sortzen saiatzen gara urtero, Haur Literatura Aretoan. Ekintza ezberdinak tarteko, Durangaldeko haur eta gazteak askotariko abenturak bizitzera gonbidatzen ditugu. Aurten zapata pare ezberdinak, erlaxazio ariketak, familietako buruhausteak, maite-poztasunak eta beste hainbat kontu kontatuko dizkiegu, eta dizkigute, haiek guri, Zornotza, Zaldibar, Elorrio eta Durangoko haur eta gazteek. Jarrai dezagun urtero liburu artean biltzen.

## 52. Durangoko Azoka, sormenaren lurraldea DA!

### Magiaz eta irudimenez beteko zaigu Saguganbara



Saguganbara euskal kulturaren transmisiorako gunea da, hizkuntzarekin jolas egitekoa. Azken urteotako ohiturari eutsiz, bost eguneko iraupena izango du, abenduaren 6tik 10era, eta egitarau anitza eta oparoa prestatu dugu edizio honetarako; ikasleentzako tailerrak, ikuskizunak, aurkezpenak, ikusgarri musikalak eta sormen tailerrak, besteak beste.

Arlo anitzetako sortzaileen eta adin ezberdinetako bisitarien arteko topagunea izango da; idazleak, ilustratzaileak, dantzariak, ipuin kontalariak, umeak, familiak, lagunak... Horretarako, Eider Eibar, Jokin Mitxelena, Ene Kantik, Arrate Egaña, Leire Bilbao, Maite Mutuberria, Amaia Hennebutte... izango dira, besteak beste, euren proiektu berriak aurkezten.

Hurreratu, zu ere ondo etorria izango zara gure sormenaren lurraldean.



### AGENDA

- **Astelehenero:**  
Olgetan Ludoteka,  
17:00etatik 18:30era,  
Plateruenan.
- **Abenduaren 1ean:**  
11 egun baietz  
ekimenaren inguruko  
aurkezpena. 19:30ean,  
Andra Mariko elizpean.
- **Abenduaren 6tik 10era:**  
Durangoko Azoka.
- **Abenduaren 13an:**  
Euskararen kale erabilera  
neurketaren aurkezpena.  
19:00etan, Plateruenan.
- **Abenduaren 30ean:**  
Urteko Azken Bertso  
Saioa, Plateruenan.

## Arrosa eta Arantza

Goienkalen aurkitu dugu oraingoan **arantza**, bertako jaietako kartelean hain zuzen ere.

Jaietako kartela ez dago ez euskara hutsean, ezta erdara hutsean ere. Elebiduna akaso? ezta. Arrazoiaren bat topatzearen, helburua hizkuntza biei tartea ematea izan bada, ez dadila sekula izan euskararen kalterako, mesedez.

-20:30 a 22h: Sugarni taldea

**Irailak 23 Larunbata:**  
**Sábado 23 de Septiembre:**

-13 a 15h: Mexikanadak  
-13tan: Sardinada

-13:30h: Concurso de paellas.  
(A las 15h pasará el jurado a valorar).

-17:30 a 19h: Zumba Solidario  
Síndrome de Angelman Durango

**Domingo 24 de Septiembre:**

-13h: Misa  
-13h: Banda Municipal

-13:30h: Concurso Tortilla (A las 15h pasará el jurado a valorar)

-14h: Comida de Jubilados  
(Apuntarse en el bar Anboto)

-17h: Concurso de Rana (Rugby)  
y Mus (Maite's)

-17 a 18:30h: Berbaro Jolasak + Pinta Caras.

Eta **arrosa** Itzartu gazte taldearen inguruan dauden hezitzaile, gazte, guraso eta enparauei.

Gazteei aisia euskaraz gozatzeko aukera eskaintzeagatik, aupa zuek, borondatez lan egiten duzuen bidelagunak!

